



Gure Esku Dago dinamikaren BATZAR OROKORRA

2014/09/27 Gasteizen

Informazio orokorra:

Parte hartzaileak: herri batzordeetako kideak.

Proposamena aurkeztu duena: Jon Arribas, Gasteizko batzordeko kidea.

Hitzartze-orokorra: Zelai Nikolas, Getxoko batzordeko kidea.

Erabakiak hartzeko erabilitako metodologia:

- Ekainak 21 geroztik herriz herri ORRI ZURIAren ariketa tarteko ekarpenak prestatu dituzte batzordeek.
- Idazkaritzak ekarpen horiek oinarri hartuta NORABIDEA, BARNE ANTOLAKUNTZA eta URTEKO EGITASMOA/K batzen dituen proposamena osatu du.
- Proposamen hori irailaren bigarren asteko herrialdeko batzarretan aurkeztu eta eztabaidatu da.
- Gaur, proposamen horretatik eratorritako 20 ebazpen bozkatu ditugu Batzar Orokorrean.
- Urriko herrialdeko bilerak bitartean, proposamena osatzeko faseak zabalik jarraituko du.

EBAZPENAK

1.- Ildo orokorraren inguruan

1.1.- GED dinamika erabakitzeko eskubideaz mintzo denean, estatus politikoaren inguruko erabakitzeko eskubidea izango du ardatz.

1.2.- Erabakitzeko eskubidearen oinarria demokratikoa da soil-soilik, norberak izan dezakeen nazio edo identitate sentimendutik harago.



1.3.- GED dinamikak, hiru fasetan sailkatutako norabideari ekingo dio.

- **Aldarrikapena ehundu**, edukiontzia, hautestontzia osatu
(Pedagogia, konplizitate berriak, aniztasuna, erabakitzeko eskubidea guztion topaleku)
- **Adostu**, edukia, galdera/k, data/k adostu
- **Gauzatu**, erabaki.

2.- Aldarrikapenaren inguruan

2.1. Erabakitzeko eskubidearen beharra, zergatia eta aukera: hedatu, arrazoitu eta aniztasunez blaitu.

2.2. Dinamikaren kideen formakuntzari erantzun.

3. Egikaritzearen inguruan

3.1 Herri kontsultak tresna baliagarriak: sustatu eta burutu, betiere horretarako baldintza egokiak sortzeko aurrean metatzailea eta eraginkorra bermatuz.

4.- Antolakuntzaren inguruan

4.0. Gure Esku Dago izenarekin, logoarekin eta herri dinamikaren izaerarekin jarraitu.

4.1. Herritarren parte hartze aktiboa ziurtatzeko, herriak dira dinamikaren oinarria.

4.2. Herri- eskualdetako antolaketa eraginkorra eta parte hartzailea ziurtatzeko, eratze formula desberdinak aztertuko dira. Hiriburuei bereziki erreparatuz.

4.3. Hileroko Herrialde mailako gune bat sortu.

4.4. Nazio mailako balizko erakundetzearen inguruko eztabaida abiatu.

4.5. Idazkaritza eta Adosgunea indarrean jarri. Behin behineko egoeratik formulazio adostura heldu arte.

5.- Finantziaketaren inguruan

5.1. Autofinantziaketa da GED dinamikaren jardunbide ekonomikoa.

5.2. Unean uneko edo tokian tokiko balizko diru laguntza publikoek ez dute dinamikaren autonomia urratuko ezta baldintzatuko.

5.3. Bazkide (saretu kuotadunak) eta laguntzailea (kuota gabeko saretuak) figurak sortzeko proposamena bideratu.

6.- Nazioartearen inguruan

6.1. Estaturik gabeko nazioekiko elkarlana sustatu.



7.- Egutegiaren inguruan

- 7.1. Azaroak 8. Mosaiko erraldoia Donostiako Zurriolan.
- 7.2. Ekainak 20. Herrialdekako ekimen erraldoiak.
- 7.3. Udarako kanpaina bat prestatuko da.
- 7.4. Irailak 19. 2015-16 kurtsoaren ibilbidea adostu.